




MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Merkatuaren segmentazioan, gure bezeroak nortzuk izango diren esango dugu, **bezeroak negozioaren zati garrantzitsuen**a baitira.

Guretzat oso garrantzitsua da bezero aniztasuna izatea, hau da, adin guztietako pertsonak nahi ditugu izan gure klaseetan, ez dugu nahi nerabeak izatea gure bezero bakarrak. Gehien bat nerabeak edo umeak izango direla uste dugu baina nagusiek ere izango dute aukera klaseak izateko. Ez dugu adin tarte txiki bat ezarri nahi. Gutxienekeo adina 4 urtekoa izango da.



Ikasleak taldeetan banatuko dira, bakoitzaren ezaugarri eta beharretara hobeto egokitzeko. Honek klaseak eraginkorragoak bihurtzen ditu eta ikasleei helburuak lortzeko laguntza ematen die.

Segmentazioa mailaren arabera egingo dugu: hasiberriak, tarteko mailakoa eta aurreratuak. Horrela, ikasle bakoitzak bere gaitasunetara egokitutako edukiak jasotzen ditu. Gainera, helburuak ere kontuan hartzen dira: batzuk lanerako edo negozioetarako ingelesa hobetu

nahi dute, beste batzuek azterketa ofizialetarako prestatzea dute helburu, eta beste batzuek eguneroko komunikaziorako ingelesa praktikatu nahi dute.

Adinaren arabera ere banatuko dugu. Haurrek jokoak eta dinamismoa eskatzen dute ikasteko, eta helduek metodologia malgua nahi izaten dute lan edo bestelako betebeharrekin uztartu ahal izateko. Prezioa eta ordutegia bezalako faktoreek ere eragin handia dute, ikasleen beharrak eta aukerak aldatu egiten baitira.

Beraz, esan dezakegu gure **segmentazio mota merkatu aldeaniztua** dela.